

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### Dosierra abiaraztea eta deialdia onartzea Vitoria-Gasteizko Errementari kaletik sarbidea duen Probintzia plazako 6. zenbakian dagoen udal lokala lizitazio bidez besterentzeko (I-1805 eta I-1806 inbentarioko erreferentzia)

Udalak erabateko jabetza du Probintzia plazako 6. zenbakian dagoen lokalaren gainean, zeinaren katastro-erreferentzia 596007280000010009HQ baita eta udalaren izenean inskribatuta baitago (finka: 2089; liburukia: 3797; liburua: 45; orria: 13; 2. zenbakiko Jabetza Erregistroa).

Lokalak errentamendu-kontratu zibil baten karga ezarrita dauka pertsona fisiko baten alde, zeinak lehentasunez eskuratzeko eskubidea baitu; hala aurreikusten da Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 25. artikuluan — eta, loturagatik, 31. artikuluan— eta berariaz ohartarazten baldintza-agirian.

Dosierrean jasota daude erabileren bateragarritasunari buruzko txostena, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko buruak emana; lokalaren balioespen-txostena, Balioespen Ataleko arkitekto teknikoak 2024ko otsailaren 8an eta 5ean emana; prozedurari buruzko txostena eta eragiketari aplikagarri zaion legeria; eta udaleko kontu-hartzailletza nagusiak emandako txostena.

Lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 18an. Oinarrizko prezioa, lizitatzailleek gora eginez hobetu ahalko duten lizitazio-tasa, hogeita hamazortzi mila eta hamalau euro eta hirurogeita hamazazpi zentimo da (38.014,77 euro). Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), aldez aurretik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <https://v-g.eus/provinciaplaza> helbidean kontsultatu ahalko da.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira proposamenak, 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2024ko azaroaren 29a izango da azken eguna.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lizitatzailleak, eta bidalketaren egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-betekizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailleen proposamenak jasotzen dituzten

gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko (<https://v-g.eus/provinciaplaza> helbidean argitaratuko da).

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onets dezan.

Esleipendunak mila eta bederatziehun euroko bermea (1900,00 euro) jarri beharko du 10 egun baliioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 28an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
*JON ARMENTIA FRUCTUOSO*